

**KUDEAKETA MATERIALAREN GOMENDIOARI BURUZKO HITZARMENA,  
EIBARKO UDALAREN ETA POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL  
AKADEMIAREN ARTEKOA, UDALTZAINGOAREN OINARRIZKO ESKALAKO  
AGENTE KATEGORIAN SARTZEKO HAUTAKETA PROZESU BATERATUEN  
KUDEAKETARAKO.**

Eibar (e)n, 2018ko ekaina -ren , 26(e)an

### **BILDUTAKOAK**

Alde batetik, Malentxo Arruabarrena Julián anderea, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia, urtarilaren 8ko (urtarrilaren 16ko EHAA, 11 zk.) 68/2013 Dekretuaren bitartez izendatutakoa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeari buruzko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 20 eta 26 artikuluek ematen dizkioten eskumenak erabiliz, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia Erakunde Autonomoaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena.

Beste aldetik, Miguel de los Toyos Nazabal, Eibarko Udaleko alkatea, Udal horren ordezkaritzan.

Bi aldeek, daukaten ordezkaritzaren indarrean, dagozkien atribuzioen jardunean eta aipatutako ordezkaritzatik sortutako elkarren arteko ahalmenen onarpenean, honakoa

#### **AZALTZEN DUTE:**

**LEHENENGOA.-** Eibarko Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2018ko maiatzaren 8ko Aldizkari Ofiziala, 87 zk.) 2017ko ekitaldian Lan-eskaintza Publikorako deia argitaratu duela. Horretan, korporazio horretako Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente izateko lanpostu bien deia egin da.

**BIGARRENA.-** Bi Administrazio jarduleak konturatzen direla toki-mailan sortzen den zaitasuna halako Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategorian sartzeko hautaketa

prozesuak egiteko, bere kudeaketa materialaren konplexutasunetik eta deia egiten duen erakundeari sortutako gastu ekonomikoetatik eratorria. Hori gutxi balitz, toki-erakunde gehienetan ez dute langile espezializaturik halako prozesuak aurrera eramateko.

Aldi berean, Toki-erakunde desberdinak azpieskaletan sartzeko hautaketa prozesuen deialdi eta lan publikorako egungo eskaintza ugariek baliabideen sakabanatzea eta gastuen biderketa sortzen dituzte.

**HIRUGARRENA.-** Bi aldeak konturatzen dira hautaketa prozesu bateratu bat egiteko jarduteko esparru komuna ezartzearen abantailez eta EAEko toki-erakundeei aplikagarri izan beharko lukeela, borondatez eta beren toki-autonomiaren jardunean kide egiten direla.

Abantailen artean honakoak daude:

- Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalarako hautaketa profil bera aplikatzea.
- Aipatutako hautaketa prozesuen ezaugarriak bateratzea.
- Aldi berean zenbait hautaketa prozesutan parte hartzen duten izangaien ihesetik eratorritako gainerako gastuen arazoak ebaztea.
- Lehen adierazitakoagatik, hautaketa prozesuetan zehar lanpostu hutsen sorrera saihestea.
- Prozesuak egiteagatiko gastua gutxitzea.

**LAUGARRENA.-** Eraginkortasun arrazoiak direla-eta, Eibarko Udalak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari eskatzen diola Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategorian sartzeko hautaketa prozesuak egiteko beharrezko diren izaera material, tekniko edo zerbitzuetako jarduerak gauzatzea.

Horregatik guztiagatik, eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11 artikuluan eta Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeari buruzko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 23.1.C eta F artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, behean izenpetzen dutenek kudeaketa materialaren gomendioari buruzko hitzarmen hau sinatzen dute, honako hauekin bat etorriz garatuko dena:

## KLAUSULAK

## **LEHENA- XEDEA**

Hitzarmen honen bitartez, Eibarko Udalak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari gomendatzen dio (aurrerantzean AKADEMIA), Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategorian sartzeko 5 lanpostuen hautaketa prozedura burutzeko beharrezko diren izaera material, tekniko edo zerbitzuetako jarduerak gauzatzea.

Eskatutako hautaketa prozedura gauzatzea Akademiak egingo du Euskal Autonomia Erkidegoko Toki-korporazio desberdinetako beste batzuekin, elkarrekin eta bateratuta.

## **BIGARRENA.- DEITUTAKO LANPOSTUEN DESKRIPZIOA.**

Hautaketa bateratuaren prozedurak, besteak beste, Eibarko Udalerako, Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente izateko 5 lanposturako eskaintza egiten du, 2. hizkuntza-eskakizunarekin.

Eskaintzen diren lanpostuak 2 hizkuntza-eskakizuna izango du derrigortasun-datarekin, derrigortasun-data iraungita baitaukate.

Eskaintzen diren lanpostuak Administrazio Bereziko Taldekoak dira, Zerbitzu Bereziako Azpitaldekoak, udaltzain klasekoak, C Sailkapen Profesionaleko Taldekoak, C1 Azpitaldekoak, 2017ko Lan-eskaintza Publikoari dagozkionak.

## **HIRUGARRENA.- KUDEAKETA GOMENDIOAREN NORAINOKOA.**

Akademiak egingo ditu hautaketa prozedura gauzatzeko eta garatzeko izaera material edo teknikoko jarduera guztiak, baita ere Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian deialdi bateraturako

oinarri espezifikoak argitaratu. Deialdi horiek eskainitako lanpostuen deskripzioaz gain, honako gai hauek izan beharko dituzte:

1. Eibarko Udalean, hautaketa prozeduraren garapenean zehar, sortu daitezkeen Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategoriko lanpostu hutsen arabera deitutako lanpostuen kopurua handitzea, legez ezarritako terminoetan.

2. Parte hartzeko betekizunak honako hauetan ezarritakoak izango dira: Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege-dekretuan eta Euskal Herriko Poliziaren Hautapena eta Prestakuntza Erregelamendua onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuan ezarritakoak.
3. Eskabideak aurkeztu behar diren azken egunerako, ezinbestekoa izango da B gidabaimena egiaztatzea.
4. Eskabideak egiteko eta aurkezteko Akademiak horretarako jarriko duen prozedura elektronikoa erabili beharko da. Eskabideak aurkezteko epea deialdi bateratua Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita hamabost egun baliodun baino gehiagokoa eta hogeita hamar egun baliodun baino gutxiagokoa izango da.
5. Akademiak Epaimahai kalifikatzaile bat izendatuko du hautaketa prozedura zehazteaz, garatzeaz eta ebaluatzeaz arduratuko dena; baita ere, parte hartzaleen hautaketaz. Otsailaren 28ko Legean xedatutakoa aplikatuko zaion Epaimahai hori honakoek osatuko dute :
  - AKADEMIAk izendatutako mahaiburu bat.
  - EUDELek proposaturiko lau bokal. Bokal horiek deialdi bateratuan parte hartzen duten udaletako langileen artekoak izango dira (bi Udaltzain Kidegoetakoak eta beste biak funtzio publikoko edo giza baliabideetako funtzionarioak).
  - Idazkaria, ahotsa duena, baina bozkatuko ez duena, AKADEMIAk izendatutakoa.
6. Hautaketa sistema oposizio-lehiaketa ireki bitartez izango da, Euskal Herriko Poliziari buruzko Hautapen eta Prestakuntza Erregelamendua onesten duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.
7. Proba teorikoak ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuan ezarritakoari lotuko zaizkio, Toki Administrazioko funtzionarioen hautaketa prozedura lotu beharreko oinarrizko arauak eta gutxiengo programak ezartzen ditueneko Errege Dekretuan ezarritakoari.

8. Merituen lehiaketa-fasean Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente gisa Udaltzain Kidegoetan egindako zerbitzuak baloratuko dira. Zerbitzu horiek oposizio fasean lor daitekeen puntuazio handienetik gutxienez %25arekin baloratuko dira eta gehienez %30arekin.
9. Euskararen jakite-maila agiri bitartez egiazta daiteke edo prozesuak dirauen bitartean egingo diren proben bitartez. Euskara probak egiteko Akademiak HAEeko lankidetza izango du. Lehentasuna izango dute Hizkuntza-eskakizuna derrigortasun datarekin duten lanpostuak betetzerakoan. Horrexegatik izango dira lehen esleituak. Euskara betekizun bat ez den lanpostuetarako honakoetan agertzen denarekin bat etorri baloratuko da: uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuko 11. artikuluarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan araututakoarekin bat etorri.
10. Epaimahaiak oposizio-lehiaketa gainditu dutenen zerrenda eta hautatutako pertsonen zerrenda argitaratu beharko ditu.
11. Hautaketa prozesuari buruzko argitalpenak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean jarriko dira. Informazio ondorioetarako Erakunde Autonomoaren Web orrialdean ere argitaratuko dira eta deialdi bateratuan parte hartzen duten Toki-korporazioei ere igorriko zaizkie. Epeen ondorioetarako erabakigarriak izango dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean argitaratzen direneko datak.
12. Eskumena duen Udalak behin baldintzak betetzen direla ziurtatuta, hautatutako pertsonak praktiketako funtzionario izendatuko dira.
13. Ezinbestean eta baztertzeko izaerarekin prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia egin beharko dira, bakoitzaz bere aldetik, eta horiek gainditu ezean, hautagaia hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta deialdi honi dagokion Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente kategorian sartzeko eskubideak galduko ditu. Ezin izango dira batera egin, eta iraupena ez da 30 hilabetekoa baino gehiagokoa izango.
14. Prestakuntza-ikastaroa ikastaro akademiko bat izango da, nahitaezkoa eta baztertzalea, eta edukia, ebaluatzea eta gainditzea moduak, eta iraupena Ikasketa Planean eta arau aplikagarrietan zehaztuko dira. Prestakuntza-ikastaroaren kalifikazioak Polizia eta

Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak jakinaraziko ditu hamaikagarren puntuau aurreikusitako moduan. Era berean, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ebatziko du ikastaroa gainditzen ez dutenak baztertzea.

15. Prestakuntza-ikastaroa gainditzen dutenek praktikaldia egingo dute dagozkien Udaltzain Kidegoetan. Praktikaldia hasi baino lehen, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ebazpen bat emango du, honako hauek ezarriko dituena: praktikaldiaren iraupena, hora baloratzeko eta gainditzeko sistemak eta prozedurak, eta praktikarako destinoak eta horietan hasteko data. Praktikaldian, hautagaiek Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategoriari dagozkion egitekoak betetzean erakusten duten eraginkortasun profesionala ebaluatuko da. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak jakinaraziko ditu praktikaldiko kalifikazioak. Eta, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ebatziko du, halaber, praktikaldia gainditzen ez dutenak baztertzea.
16. Praktikaldia bukatu ondoko bi hilabeteko epean, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren proposamenez, dagokion Udaleko Alkatetzak karrerako funtzionario izendatuko ditu hautaketa procedura gainditu duten hautagaiaik. Izendapena Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente gisa egingo da.
17. Praktiketako funtzionarioek Udal bakoitzari dagokion araudian zehazturiko lansaria jasoko dituzte. Halaber, dagokien Udalak eman beharko dizkie beren praktiketako funtzionarioei armak, dokumentazioa eta ekipamendua.
18. Praktiketako funtzionarioei Barne Araudiko Erregelamendua eta Akademiako barne araudia aplikatuko zaizkie. Halaber, diziplina-araubidearen arabera irakaskuntza arloko diziplina-hutsegite hutsak ez diren egoeretan Euskal Herriko Polizia Kidegoen diziplina-araubidearen arauak aplikatuko dira. Arau-hauste larria edo oso larria egiteagatik zigor bat jasotzea arrazoi espezifikoa izango da hautaketa prozeduratik kanpo geratzeko, lehen aipatutako araukin bat etorriz, eta Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategorian sartzeko eskubideak prozesu horretatik eratorriak galtzeko.
19. Prestakuntza-ikastaroari aplikatu ahal zaizkion ebaluazio-irizpideekin bat etorriz, Ikasketa Planean bildutako ikasgaien ebaluazio partzialetik ondorioztatzen bada hautagairen batek prestakuntza-ikastaroa gainditzeko ezintasun materiala duela, dagokion Udaleko Alkatetzak, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari

nagusiaren proposamenez, prozesutik kanpo utzi dezake, betiere kasuan kasuko praktiketako funtzionarioari entzun ondoren.

20. Prestakuntza-ikastaroan edo praktikaldian hautaketa prozeduratik baztertutako pertsonek dagokien Udalari bueltatu beharko dizkiote armak, dokumentazioa edo emandako edozein ekipo.
21. Hautaketa prozedura gainditzen duten pertsonak, dagokion Udaleko Alkatetzak karrerako funtzionario izendatuko ditu Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente gisa.

## **LAUGARRENA.- GOMENDIOAREN TERMINOAK**

Eibarko Udalak:

- a) Eskumenen titulartasuna mantenduko du. Eskumen horiek betetzea kudeaketa materialaren gomendioari buruzko Hitzarmen honen bitartez egitea gomendatzen da.
- b) Hautaketa prozesuari dagokion Lan-eskaintza Publikoa onetsiko eta argitaratuko du. Hori deialdi bateratua argitaratu baino lehen egin beharko du.
- c) AKADEMIARI bidali beharko dio beharrezko informazioa eta prozesuaren garapen zuzenerako beharrezko materialaren lankidetza emango dio.
- d) Behin hautaketa fasea amaituta deitutako lanpostuetara esleitura dauden pertsonak praktiketako funtzionario izendatuko ditu eta hautaketa prozesua amaituta karrerako funtzionario izendatuko ditu.
- e) Deialditik sortutako gastuen finantzaketan lagunduko du, bosgarren klausulan ezarritakoaren arabera.

AKADEMIAk, hirugarren klausulako terminoetan gomendatutako jardueretan gain, honako hauek izango ditu bere kargura:

- a) Ariketen garapen materialerako beharrezko operatiboa kudeatuko du: Tokien kontratazioaren kudeaketa; hautaketa probak egiteko tokiak hornitzea; hautaketa prozesurako zaintzaileak kontratatzeko kudeaketa; oposizio-proben itzulpena eta erreprodukzioa; Proba-egunean probak banatzea eta biltzea; halako jendetzak parte hartzen ditueneko hautaketa prozesu bat zuzentasunez gauzatzeko beharrezko diren jarduerak egitea: aparteko beharrizanak dituzten pertsonen zainketa-lana eta laguntza, etab.

- b) Hautaketa prozesuak eraginkortasunez eta berdintasun, meritu, ahalmen eta publizitate printzipioak zorrotz errespetatuz prozesuak ondo gauzatzeko baliabideak bideratuko ditu, aldi berean, izaera pertsonaleko datuei buruzko indarrean dagoen araudia errespetatuz.

## **BOSGARRENA.- FINANTZIAZIOA**

Akademiak ordainduko ditu kudeaketa gomendiotik sortutako gastuak.

Eibarko Udalak ordainduko die oposizio fasea gaindituta destinoa aukeratu duten praktiketako agente izendatutako pertsonei, udalak daukan aplikazio-araudiarekin bat etorriz, prestakuntzak eta praktikak iraun bitartean. Aldi berean, armak, dokumentazioa eta beharrezko ekipoak eman beharko dizkie.

## **SEIGARRENA.- EBAZPENA**

Kudeaketa materialaren gomendioari buruzko Hitzarmen hau bi aldeek ebatzi ahal izango dute aldez aurretik beste aldeari gutxienez sei hilabete lehenago jakinarazten bazaio, eta ebazpena ematen den momentuan martxan dauden jarduerak edozein kasutan ere jarraitu egin beharko dutela bermatuko da. Ebazpena jakinarazten denetik hasita hamabost egunetara indarrean sartuko da, bestelako akordiorik izan ezean.

Honako hauek izango dira kudeaketa materialaren gomendioari buruzko Hitzarmen honen ebazpenaren kausak:

- A) Edozeinetako bi aldeen salaketa.
- B) Hitzarmen honen klausulak ez betetzea.
- C) Bi aldeen elkarren arteko adostasuna.

## **ZAZPIGARRENA.- IRAUPENA**

Kudeaketa materialaren gomendioari buruzko Hitzarmen hau sinatzen denetik hasita indarrean izango da urte baterako. Hori bai, urte bateko epe hori amaitu baino lehen, bi aldeek erabaki ahal

izango dute hitzarmena luzatzea eskainitako lanpostuak beteko dituzten pertsonak karrerako funtzionario izendatu arte.

## **ZORTZIGARRENA.- IZAERA ETA JURISDIKZIOA**

Kudeaketa materialaren gomendioari buruzko Hitzarmen honek administrazio-izaera du eta, bere interpretaziotik eta betetzetik sor daitezkeen auzigaiak administrazioarekiko auzien ordenaren eskumenarekin bat etorri ebatziko dira.

Kudeaketa materialaren gomendioari buruzko Hitzarmen hau bi aldeek irakurri ondoren eta hitzarmenean agertzen denarekin adostasuna eman ondoren, ale bikoitzuan sinatzen dute, goian azaltzen den tokian eta datan, eta honetan agertzen diren klausulekin bat etorri.

**EIBARKO UDALEKO ALKATEA**

**POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO  
EUSKAL AKADEMIAKO ZUZENDARI  
NAGUSIA**

**CONVENIO DE ENCOMIENDA DE GESTION MATERIAL ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE EIBAR Y LA ACADEMIA VASCA DE POLICIA Y EMERGENCIAS PARA LA GESTION DE LOS PROCESOS SELECTIVOS UNIFICADOS DE INGRESO EN LA CATEGORIA DE AGENTE DE LA ESCALA BASICA DE POLICIA LOCAL.**

En Eibar, , a 26 de junio de 2018

**REUNIDOS**

De una parte, la Sra. Dña. Malentxo Arruabarrena Julián, Directora General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, nombrada mediante Decreto 68/2013, de 8 de enero (BOPV nº 11, de 16 de enero), que actúan en nombre y representación del Organismo Autónomo Academia Vasca de Policía y Emergencias, en virtud de las competencias atribuidas por los artículos 20 y 26 de la Ley 15/2012, de 28 de junio, de Ordenación del Sistema de Seguridad Pública de Euskadi.

De otra parte, D. Miguel de los Toyos Nazábal, Alcalde del Ayuntamiento de Eibar, en representación del mismo.

Ambas partes, en virtud de la representación que ostentan, en el ejercicio de sus respectivas atribuciones y en el mutuo y recíproco reconocimiento de las facultades derivadas de la mencionada representación,

**EXPONEN:**

**PRIMERO.-** Que por parte del Ayuntamiento de Eibar, ha sido publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (BOG nº 87 de 8 de mayo de 2018) la Oferta Pública de Empleo correspondiente al ejercicio 2017 en la que se incluye 5 plazas de Agente de la Escala Básica de Policía Local de dicha corporación.

**SEGUNDO.-** Que ambas Administraciones actuantes son conscientes de la dificultad que genera en el ámbito local la realización de los procesos selectivos para ingreso en la Categoría de Agente de la Escala Básica de la Policía Local, derivados de la complejidad de su gestión material, y de

los costes económicos generados a la entidad convocante, a lo que se une, en el caso de la mayoría de entidades locales, la carencia de personal especializado para llevar adelante este tipo de procesos.

A su vez, la actual multiplicidad de ofertas de empleo público y convocatoria simultánea de procesos selectivos para el ingreso en las mismas subescalas en distintas Entidades Locales genera dispersión de recursos y multiplicación de costes.

**TERCERO.-** Las partes convienen en poner de manifiesto las ventajas de establecer un marco común de actuación para llevar a cabo un proceso selectivo unificado y que sea aplicable a las entidades locales de la CAPV, que voluntariamente y en ejercicio de su autonomía local, se adhieran al mismo.

Entre estas ventajas se encuentran las siguientes:

- Aplicar el mismo perfil de selección para la Escala Básica de Policía Local.
- Unificar las características de tales procesos selectivos.
- Resolver los problemas de sobrecostes derivados de la fuga de aspirantes que participan en varios procesos selectivos simultáneamente.
- Evitar la generación de vacantes durante el proceso selectivos por lo señalado anteriormente.
- Reducir el coste de celebración de los procesos

**CUARTO.-** Que por razones de eficacia el Ayuntamiento de Eibar, solicita a la Academia Vasca de Policía y Emergencias la realización de cuantas actividades de carácter, técnico o de servicios sean precisas para la ejecución de los procesos selectivos para el ingreso en la Categoría de Agente de la Escala Básica de la Policía Local.

Por todo ello, y de conformidad con lo establecido en los artículos 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y 23.1.C y F de Ley 15/2012, de 28 de junio, de Ordenación del Sistema de Seguridad Pública de Euskadi, los abajo firmantes acuerdan suscribir el presente Convenio de encomienda de gestión material que se desarrollará de acuerdo con las siguientes

## CLAUSULAS

## **PRIMERA-OBJETO**

Por el presente Convenio, el Ayuntamiento de Eibar encomienda a la Academia Vasca de Policía y Emergencias (en lo sucesivo ACADEMIA), la realización de cuantas actividades de carácter material, técnico o de servicios sean precisas para la ejecución del procedimiento de selección de 5 plazas para ingreso en la Categoría de Agente de la Escala Básica de la Policía Local.

La realización del procedimiento de selección encomendado se llevará a efecto por la Academia de forma conjunta y unificada con otros análogos de diferentes Corporaciones Locales de la Comunidad Autónoma Vasca.

## **SEGUNDA.- DESCRIPCION DE LAS PLAZAS A CONVOCAR.**

El procedimiento de selección unificado, ofertará, entre otras, 5 plazas de Agente de la Escala Básica de la Policía local del Ayuntamiento de Eibar, con perfil lingüístico 2.

Las plazas a ofertar, requerirá el perfil lingüístico 2 como preceptivo, al contar con la fecha de preceptividad vencida.

Pertenece al Grupo de Administración Especial, Subgrupo de Servicios Especiales, Clase Policía Municipal, integradas en el Grupo de Clasificación Profesional C, Subgrupo C1, correspondientes a la Oferta Pública de Empleo de 2017.

## **TERCERA.- ALCANCE DE LA ENCOMIENDA DE GESTION.**

La Academia realizará todas aquellas actuaciones de carácter material o técnico para la ejecución y desarrollo de un procedimiento de selección, así como la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de unas bases de convocatoria unificadas específicas, que, además de la descripción de las plazas ofertadas, habrán de contemplar las siguientes cuestiones:

1. La posibilidad de ampliar el número de plazas convocadas en función de las vacantes de la Categoría de Agente de la Escala Básica de la Policía Local que se generen en el

Ayuntamiento de Eibar durante el desarrollo del procedimiento de selección, en los términos legalmente establecidos

2. Los requisitos de participación serán los establecidos en el Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, y en el Decreto 315/1994, de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco.
3. Se habrá de acreditar estar en posesión de los permisos de conducción de tipo B en vigor al último día de presentación de solicitudes.
4. Las solicitudes deberán cumplimentarse y presentarse por el procedimiento electrónico que al efecto establezca la Academia. El Plazo de presentación de solicitudes no podrá ser inferior a quince días hábiles ni superior a treinta, contados a partir del día siguiente a la publicación de la convocatoria unificada en el Boletín Oficial del País Vasco.
5. La Academia nombrará un Tribunal Calificador encargado de la determinación, desarrollo y evaluación del procedimiento selectivo, y la selección de las personas participantes. Dicho Tribunal, al cual le será de aplicación lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 28 de febrero, estará compuesto por :
  - Presidente/a designado por la ACADEMIA
  - Cuatro vocales designados a propuesta de EUDEL entre el personal de los ayuntamientos participantes en la convocatoria unificada (dos de los cuales serán pertenecientes a los Cuerpos de Policía Local, y los otros dos serán funcionarios de función pública o recursos humanos)
  - Secretario/a, con voz, pero sin voto, designado/a por la ACADEMIA.
6. El sistema de selección será el de concurso-oposición libre, de conformidad con lo establecido en el artículo 17 del Decreto 315/1994, de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco.
7. Las pruebas teóricas se ajustarán a lo establecido en el Real Decreto 896/1991, de 7 de junio, por el que se establecen las reglas básicas y los programas mínimos a que debe ajustarse el procedimiento de selección de los funcionarios de Administración Local.
8. En la fase de concurso de méritos habrán de ser valorados los servicios prestados en Cuerpos de Policía Local como Agente de la Escala Básica de Policía Local. Estos

servicios prestados tendrán una valoración mínima del 25% y máxima del 30% de la puntuación máxima alcanzable en la fase de oposición.

9. El conocimiento del euskera podrá realizarse en forma documental o mediante las pruebas correspondientes a realizar durante el transcurso del proceso. Para la realización de las pruebas de euskera la academia habrá de contar con la colaboración del IVAP. La cobertura de las plazas correspondientes a los puestos de trabajo que tienen aparejado Perfil Lingüístico preceptivo tendrá prioridad, por lo que se serán las primeramente adjudicadas. Para aquellas plazas en que no sea requisito, el euskera será valorado en la forma prevista por el artículo 11 del Decreto 315/1994, de 19 de julio y de acuerdo con lo regulado en el Decreto 86/1997 de 15 de abril por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi,
10. El Tribunal habrá de publicar la relación de personas que hayan superado el concurso-oposición así como la relación de las personas seleccionadas.
11. Las publicaciones relativas al proceso de selección se realizarán en el Tablón de Anuncios de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, A efectos informativos serán igualmente publicadas en la página Web del Organismo Autónomo y remitidas a las Corporaciones Locales participantes en la convocatoria unificada. La fecha de publicación en el Tablón de Anuncios de la Academia Vasca de Policía y Emergencias será determinante a efectos de cómputo de plazos.
12. Una vez comprobado el cumplimiento de requisitos, por el Ayuntamiento competente se procederá al nombramiento de las personas seleccionadas como funcionarios en prácticas.
13. Existirán un curso de formación y un período de prácticas, que tendrán carácter obligatorio y eliminatorio, individualmente considerado, y su no superación determinará la exclusión del procedimiento selectivo y la pérdida de cuantos derechos pudieran asistir a quien no lo hubiere superado para su ingreso en la categoría de Agente de la Escala Básica de Policial Local. No podrán simultanearse en su desarrollo, sin que su duración acumulada, pueda exceder de 30 meses.
14. El curso de formación consistirá en un curso académico, de carácter obligatorio y eliminatorio, cuyos contenidos, formas de evaluación y superación y duración serán los

determinados en el Plan de Estudios determinado por la Academia y la normativa de aplicación. Las calificaciones del curso de formación se harán públicas en la forma prevista en el punto undécimo por la Directora General de la Academia. Igualmente la Directora General de la Academia declarará la exclusión de quienes no superen el curso de formación.

15. Quienes superen el curso de formación realizarán el período de prácticas en los Cuerpos de Policía Local respectivos. Con anterioridad al inicio del período de prácticas, la Directora General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias dictará Resolución por la que se establezcan la duración, los sistemas y procedimientos de valoración y superación del período de prácticas. Durante el período de prácticas se evaluará la eficacia profesional vinculada con la ejecución de tareas propias de la Categoría de Agente de la Escala Básica de la Policía Local. Las calificaciones del período de prácticas se harán públicas por la Directora General de la Academia. Igualmente, la Directora General de la Academia declarará la exclusión de aquellas personas que no superen el período de prácticas.
16. Dentro de los dos meses siguientes al de la finalización del período de prácticas, y a propuesta de la Directora General de la Academia, por la Alcaldía del respectivo Ayuntamiento, se procederá a efectuar el nombramiento como funcionario o funcionaria de carrera de quienes hubieran superado el procedimiento selectivo. El nombramiento se efectuará como Agente de la Escala Básica de la Policía Local.
17. Los funcionarios y funcionarias en prácticas percibirán las retribuciones a cargo de su respectivo ayuntamiento. Igualmente el respectivo ayuntamiento será el encargado de proporcionar el armamento, documentación y equipo a sus funcionarios en prácticas.
18. A los funcionarios y funcionarias en prácticas les será de aplicación el Reglamento de Régimen Interior y la normativa de régimen interno de la Academia. Igualmente, y para aquellos supuestos del régimen disciplinario en que el hecho no constituya simple falta de disciplina docente, con carácter supletorio, serán de aplicación las normas de régimen disciplinario de los Cuerpos de Policía del País Vasco. La imposición de una sanción por la comisión de una infracción tipificada como grave o muy grave, según las normas anteriormente mencionadas serán causas específicas de automática exclusión del procedimiento selectivo, así como de pérdida de cuantos derechos se deriven del mismo para su ingreso en la categoría de Agente de la Escala Básica de la Policía Local.

19. De conformidad con los criterios evaluativos aplicables al curso de formación, si de la evaluación parcial de las materias contenidas en el Plan de Estudios se desprende la imposibilidad material de superación del curso de formación, la Alcaldía del respectivo Ayuntamiento, a propuesta de la Directora General de la Academia podrá declarar su exclusión previa audiencia del funcionario o funcionaria en prácticas
20. Las personas excluidas del procedimiento selectivo en el curso de formación o en el período de prácticas devolverán al respectivo Ayuntamiento el armamento, documentación y todo tipo de equipo suministrado.
21. Las personas que superen el procedimiento de selección serán nombradas funcionarias de carrera como Agentes de la Escala Básica de la Policía Local por la Alcaldía del respectivo Ayuntamiento.

#### **CUARTA.- TERMINOS DE LA ENCOMIENDA**

El Ayuntamiento de Eibar:

- a) Mantendrá la titularidad de las competencias cuya ejecución se encomienda por el presente Convenio de encomienda de gestión material.
- b) Aprobará y publicará la Oferta Pública de Empleo correspondiente al proceso selectivo cuya gestión se haya encomendado, con carácter previo a la publicación de la convocatoria unificada.
- c) Remitirá a la ACADEMIA la información precisa y prestará la colaboración material necesaria para el correcto desarrollo del proceso.
- d) Efectuará el nombramiento en prácticas de las personas que resultaren adjudicatarias de las plazas convocadas una vez concluida la fase de selección y como funcionaria de carrera una vez finalizado el proceso de selección.
- e) Contribuirá a financiar los gastos derivados de la convocatoria según lo establecido en la cláusula quinta.

La ACADEMIA, además del ejercicio de las actuaciones encomendadas en los términos de la cláusula tercera:

- a) Gestionará el operativo necesario para el desarrollo material de los ejercicios: Gestión de la contratación de locales; equipamiento de los locales para la realización de las

pruebas selectivas; Gestión de la contratación de cuidadores para el proceso selectivo; traducción y reproducción de los ejemplares de las pruebas de la oposición; distribución y recogida el día de las pruebas; así como todas las actuaciones que sean precisas para llevar a cabo adecuadamente un proceso selectivo de carácter masivo: vigilancia, atención a personas con necesidades especiales, etc.

- b) Habilitará los medios para llevar a buen fin los procesos selectivos de forma eficaz y con estricto respeto a los principios de igualdad, mérito, capacidad y publicidad, respetando, asimismo la normativa vigente sobre datos de carácter personal.

## **QUINTA.- FINANCIACION**

La Academia sufragará los gastos derivados de la ejecución de la encomienda de gestión.

El Ayuntamiento de Eibar retribuirá de acuerdo con su normativa de aplicación a las personas nombradas Agentes en Prácticas que lo hayan elegido como destino una vez superada la fase de oposición, y mientras dure la fase de formación y prácticas. Igualmente proporcionará el armamento documentación y equipo necesarios.

## **SEXTA.- RESOLUCION**

El presente Convenio de encomienda de gestión material podrá ser resuelto por cualquiera de las partes previa notificación a la otra con una antelación mínima de seis meses, garantizándose en cualquier caso la necesaria continuidad de aquellas actuaciones que se encontraran en ejecución en el momento de la resolución, surtiendo efecto, salvo acuerdo en otro sentido, a los quince días de su notificación.

Serán causas de resolución del presente Convenio de encomienda de gestión material las siguientes:

- A) La denuncia de cualquiera de las partes.
- B) El incumplimiento de las cláusulas de este Convenio
- C) El mutuo acuerdo de las partes.

## **SEPTIMA.- DURACION**

El presente Convenio de encomienda de gestión material producirá efectos a partir de la fecha de su firma y tendrá una vigencia anual, si bien las partes, en cualquier momento antes de la finalización de dicho plazo anual, podrán acordar su prorroga hasta el nombramiento como funcionarias de carrera de las personas que vayan a ocupar las plazas ofertadas.

## **OCTAVA.- NATURALEZA Y JURISDICCION**

Este Convenio de encomienda de gestión material tiene naturaleza administrativa, de forma que las cuestiones litigiosas que puedan surgir en la interpretación y cumplimiento del presente se resolverán de acuerdo a la competencia del orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

Leído por las partes y en prueba de conformidad con lo expuesto en el presente Convenio de encomienda de gestión material, lo firman en duplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento, y conforme a las cláusulas que en el mismo se han establecido.

**ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE  
EIBAR**

**DIRECTORA GENERAL DE LA  
ACADEMIA VASCA DE POLICIA Y  
EMERGENCIAS**